

Gure proiektua aurrera eramateko, hainbat kostu izango ditugu. Hasteko, lokal bat beharko dugu bertan lan egiteko, beraz prestamu bat eskatuko dugu bat eskuratzeko. Oraingoan, hainbat kostu finko ditugu; bai lokalaren kostua, eta baita ere web gunearen hostinga. Kostu aldakorrak aldiz, gure gailua egiteko beharko dugun materiala izango da, erositakoaren kopuruaren arabera prezioa aldatzen delako. Honekin batera, kronometroak ere erosi beharko ditugu, gailuan ezartzeko eta honela jabeari pilula noiz hartu behar duen abisatzeko. Azken hau ere kostu aldakorra izango litzateke, erositako kopuruaren arabera prezioa aldatzen delako.